

MAITASUNEZ SORTZEN DEN MUSIKA...¹

Axun Larburu

Zortzi urte zituela ekin zion Maite Larburu Garmendiak biolina jotzen ikasteari, gure herriko Musika Eskolan. Eta Donostiako Musika Kontserbatorioan amaitu zituen Goi mailakoak, 20 urte zituenean.

Ikasteko grinak eraman zuen 2002an Maite Holandara, eta beso zabalik hartu zuen Herbeheretako Amsterdam hiri kosmopolitak. Orduz geroztik, bertako Kontserbatorioan aritu da ikasten, eta Europako zenbait herri eta hiritan kontzertuak eskaintzen. 2007ko udaberrian amaitu berri du bere tesia, antzinako eta egungo biolinaren arteko aldeak azaltzera datorrena. Lehenaldiari eta etorkizunari begira baino, unean unekoari erreparatzea maite du Maitek. Eta biolinaren sokak maitasunez laztantzen ditu, guk musika hain hurbil eta hain sakon izan dezagun.



“Kantatu, aita, kantatu!” eskatzen zenion aitari txiki-txikitan, gogoratzen al zara?

Ez naiz ba gogoratuko! Batez ere etxekeok kontatu didazuenagatik... Kantatu, asko kantatu dugu beti familia artean. Kantuak eraman ninduen musikarantz, biolinerantz...

Kantu eta dantza amaitzen dira batzuetan-eta etxeke ospakizunak...

Egia da hori. Askotan galdetzen didate gure familian musikaririk ba ote den, eta ezetz esaten dudan arren, ez dakit ba, musikarekin modu batera edo bestera oso loturik gaudela iruditzen zait...

Klasikoa ez zen musika entzuten zenuen etxean batik bat txikitan, ezta? Nolakoa?

Lehendabizi, gurasoen gustuko musika. Zenbat aldiz entzun ote dut Antonio Machin-en cassette bera kotxean, hara eta hona genbiltzala! Eta anai-arreba zaharragoen musika ere

¹ Elkarrizketa 2007ko udaberrian egin zen.

entzuten nuen... Beatles-ak, Rolling Stones-ak, Simon and Garfunkel, La polla records, The Smiths, The Clash, Tom Waits, Itoiz, Ruper Ordorika... Halere, zenbait musika klasikoko disko ere bazeuden etxean, Bach, Vivaldi, Mozart... xeoxe.

Klasikoa deitzen zaion musika hori nola definituko zenuke?

A zer nolako galdera zaila... Europar tradizioko gizarte klase altuko musika da musika klasikoa, folklore eta musika herrikoitik bereizten dena...

Eta klasikoan barroko garaikoa hautatu duzu, zergatik? Nolakoa da?

Tira, Barroko garaikoa bakarrik ez dut hautatu. Esan dezagun antzinako musika instrumentu orijinalekin interpretatzea hautatu dudala. Errenazimendu, Barroko, Klasiko, Erromanizismo garaiko musika orduan erabiltzen zen biolin motarekin jotzea aukeratu dut. Halere, musika garaikidea jotzen dudanean, gaur egungo biolin "modernoa" erabiltzen dut...

Anaia musikari lotua, baita gure amona ere...

Bai, biek gauza hagitz ezberdinak egingen. Anaia soinu teknikari bezala eta amona berriz Urte Zaharrero ezpainen-tako harmonika astinduz... Amonarengandik lotsagabekeria nahi nuke eta anaiarengandik, musika entzuteko duen belarri fina...

Zergatik biolina?

Galdera hori ezin diot argi erantzun eta askotan galdetu didate. Uste dut, amari oparitu zioten Vivaldiren Lau Urtaroen cassette zahar baten eraginez izan zela... Halere, hor zeundeten anaia eta zeu ere, amak akordeoia jo nezan nahi zuela esaten zuenean, zuek biak ezetz...

Zein da biolinaren lekua Euskal Herrian?

Leku txikia, nahiz eta oso instrumentu folklorikoa izan. Ez dago biolina ikasteko ohitura handiegirik...

Isiltasunaren eta soinuaren arteko zure harreman perfektua, zein da?

Oso gutxitan entzuten dut musika, egunean jotzen dudana gain, gutxi.



Maiteri bidaiatzeko garaia heldu zitzaion, beti biolina bizkarrean hartuta.

Isiltasuna asko maite dut, musika entzuteak esfortzu berezia eskatzen dit.

Hernaniko Musika Eskolako Eduardo Lassalettak harri bitxia zinela esaten zion amari, zer izan zen bera zuretzat?

Bihotz handiko gizona, musika asko maite zuena. Musika maitasunez jotzen erakutsi zidan eta hori, orain arteko ikasgairik garrantzitsuenaren izan da...

Eta Donostiako Kontserbatoriotik ateratako ikaspena?

Musika instituzio bat baina askoz gehiago dela...

Jendaurreko zure lehenengo emanaldia?

Hernaniko Udaletxean, zortzi urte nituela.

Eta azkena?

Stockholmen...

Gogoangarriena?

Bartzelonan, Palau de la Musican, gutxitan jo dut halako zoriontasunarekin...

Musika ikasketak eta lagunartea uztertatu ezin al dira?

Ez. Baina pittin bat bereziak gara musikariok, bakarrik ordu asko pasatzen ditugu. Lagun ez musikariak

beste klasekideekin dauden bitartean, gu geure instrumentuarekin izaten gara...

Noiz ikasten da biolina jotzen ikasten?

Urte askoren buruan. Oraindik horretan nabil... Nola denbora tarte gutxienari etekin gehiena aterata...



Maite, orain dela urte batzuk, Nikanor Zabaleta saria irabazi zuenean.



Maite, zutik, Hernaniko Kultur etxean, 2006ko abenduan, emandako kontzertuan.

Nikanor Zabaleta saria entzutean zer datorkizu gogora?

Poza batez ere. Horrez gain, beste urtebetez ikasi ahal izatea eskaini zidan eta, bestetik, biolin hobearen erosteko aukera.

Bost urte Amsterdamen, nola hartu zaitu hiriak?

Besoak zabalik... Ez nau inoiz ito nahi izan, baina ezta besarkatu ere... Hiri sekulakoa da, hain irekia, hainbeste aukera, musika bizitza hain zabala... Soziala ez hainbeste igual...

Zer dago han hemen falta dena?

Kulturarekiko harremana.

Zer dago hemen han falta dena?

Etxea, maiteak, mendiak, janaria...

Nola ikusten da atzerritik Euskal Herria?

Polita, menditsua eta urrun...

Nola ikusten dute atzerrian Euskal Herria?

Indartsu.

2006ko abenduan Hernaniko Kultur Etxean jo zenuen Alea Ensemble taldearekin, zer moduz?

Oso ongi... Pena, jende gehiegi etorri ez izana, baina etorri zirenak kontentu sumatu nituen.

Tesia amaituta aldaketa urtea datorkizula dirudi: Stockholm, Bartzelona, Zaragoza, Frantzia... liburuak itxi eta bidaiatzeko garaia heldu al zaizu?

Hala dirudi. Beti bidaian biolina bizkarrean hartuta, ... bere gauza on eta txarrekin.

Noiz entzun ahal izango dugu Maite Larburu osteraren gure herrian?

Hernanin ez dakit... Euskal Herrirako izan ditut eskaintzak baina ezinezkoak izan dira... Bilbon halere, urtarrean, "Al ayre espagnol" taldearekin egongo naiz.

